

PREBENTZIO PLANA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**2017KO
BERTSIOA**



LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA
PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
3.or. 20tik / Pág. 3 de 20
PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE
PREVENCIÓN

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA
- 2.- PREBENTZIO PLANAREN HELBURUA
- 3.- EDUKIAK
 - 3.1.- ENPRESAREN IDENTIFIKAZIOA
 - 3.2.- ANTOLAKUNTZA EGITURA
 - 3.3.- PREBENTZIOAREN ANTOLAKUNTZA EGITURA
 - 3.4.- ERANTZUKIZUNAK ETA FUNTZIOAK
 - 3.5.- PRAKTIKAK, PROZEDURAK ETA PROZESUAK
 - 3.6.- BALIABIDEAK
- 4.- PLANA LANDU, ONETSI ETA BERRIKUSTEA
- 5.- ERANSKINAK

1.- SARRERA

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak —abenduarien 12ko 54/2003 Legeak aldatua— 16. artikuluan xedatzen duenez, enpresaburuak enpresako kudeaketa sistema nagusira bildu beharko du lan-arriskuen prebentzioa, hala enpresako jarduera guztiei dagokienez, nola enpresako hierarkia-maila guztiei dagokienez, lan-arriskuak prebenitzeko plana ezarriz eta aplikatuz.

Lan arriskuak prebenitzeko planak alderdi hauek hartuko ditu barne enpresan prebentzio-lana gauza dadin, erregelamenduak ezarritakoaren ildotik: antolakuntza-egitura, erantzukizunak, zereginak, praktikak, prozedurak, prozesuak eta behar diren baliabideak.

Arriskuak prebenitzeko plana kudeatu eta aplikatzeko oinarritzko tresnak dira lan-arriskuak ebaluatzea eta prebentzio-jardueraren plangintza.

2.- PREBENTZIO PLANAREN HELBURUA

Prebentzioaren integrazioa bermatu nahi da ondorio guztietarako, prebentzio-betebeharrak benetan eta modu efektiboan betez. Horrenbestez, prebentzio plan honen helburua da laneko arriskuen prebentzioa Gasteizko Udalaren, udal enpresen eta erakunde autonomoen kudeaketa-sistemetan integratzea, hala jarduera guztiei dagokienez, nola hierarkia-maila guztiei dagokienez, lan-arriskuak prebenitzeko plana ezarriz eta aplikatuz, lana seguruagoa eta asebetegarriagoa izan dadin laguntzeko, lan-ezbeharrei aktiboki aurre egiteko, prebentzioaren benetako kultura sustatzeko, lanetik eratorritako arriskuak galarazi edo gutxitzeko, eta arrisku-ebaluazioetatik ondorioztatutako prebentzio-jarduera planifikatzeko.

Prebentzio plana da prebentzio jarduera enpresaren kudeaketa sistema orokorrean integratzeko tresna, eta horren bidez ezarri eta formalizatzen da prebentzio politika, prebentzioaren helburuak lortzeko antolakuntza-egitura, praktikak, prozedurak, prozesuak eta behar diren baliabideak jasoz, eta laneko arriskuen prebentzioari dagokionez erantzukizunak eta zereginak esleitzuz produkzio-prozesuetan eta hierarkia-mailetan.

Hona hemen Gasteizko Udalak, udal enpresek eta erakunde autonomoek prebentzioaren alorrean bere egiten duten politika eta, zehazki, alor horretako oinarritzko helburuak eta prebentzio-ekintza gidatzen duten printzipioak:

- Laneko arriskuen prebentziorako kudeaketa-sistema (aurrerantzean, LAPKS) bat ezartzea eta kudeatzeko behar diren prozedurak ezartzea.
- Lanpostu guztietan arriskuen ebaluazioak egin eta berrikus daitezen sustatzea.

- Arriskua desagerraraztea edo murriztea, hainbat arlotako prebentzio neurrien bitartez: jatorrian, antolakuntzan, babes kolektibokoak, norbera babestekoak, eta langileei prestakuntza eta informazioa ematekoak.
- Udal eraikin guztietan autobabes planak eta larrialdi neurriak ezar daitezzen arduratzea.
- Langileen osasunaren zaintzaz arduratzea.
- Gasteizko Udalean, udal enpresetan eta erakunde autonomoetan egiten duten jardura profesionala dela eta langileek izan ditzaketen laneko istripuak, gaixotasun profesionalak eta segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako edozein gorabehera murriztea.
- Gasteizko Udaleko, udal enpresetako eta erakunde autonomoetako antolakuntza maila guztietan zabaltzea zein garrantzitsua den lana behar diren segurtasun baldintzetan egitea, eta horrek duen eragin zuzena langileen eraginkortasun- eta efizientzia-mailak igotzean, langileak baitira Udalaren aktibo nagusia.
- Antolakuntza-egiturak prebentzio plana ezagut dezan eta laneko arriskuen prebentzioaren integrazioa bere egin dezan lortzea.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa sustatzea, sexuarekin loturiko aldagaiak aintzat hartuz hala datuak bildu eta tratatzeko sistemetan nola laneko arriskuen prebentzioaren alorreko azterlan eta ikerketetan, lanetik eratorritako kalteak langileen sexuarekin lotuta egon daitezkeen antzeman eta egoera horiek prebenitzeko.

3.- EDUKIAK

3.1.- MANKOMUNITATEA OSATZEN DUTEN ENPRESEN IDENTIFIKAZIOA

Enpresaren izena	VITORIA-GASTEIZKO UDALA
IFZ	P 016800 F
Jarduera	TOKI administrazioa
Helbidea	Espania plaza, 1 - 01001, Vitoria-Gasteiz
Telefonoa	945161616
Alkate lehendakaria	Gorka Urtaran Agirre

Enpresaren izena	GASTEIZKO HIRI GARRAIOAK, SA
IFZ	A01005230
Jarduera	Bidaiarien hiri garraioa
Helbidea	Agirrelanda kalea, 2 - 01013 Vitoria-Gasteiz
Telefonoa	945 161054
Kudeatzailea	Marijo Ajuriaguerra



LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA
PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
6.or. 20tik / Pág. 6 de 20
PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE
PREVENCIÓN

Enpresaren izena	GASTEIZKO UDAL URAK, SA
IFZ	A0100737G
Jarduera	Edateko ura tratatu eta araztea eta hondakin-urak araztea
Helbidea	Antilletako pasabidea, 3 A-behea - 01012 Vitoria-Gasteiz
Telefonoa	945161000
Kudeatzailea	Angel Llamazares

Enpresaren izena	ENSANCHE 21 ZABALGUNEA
IFZ	A013002462
Jarduera	Aholkularitza teknikoa
Helbidea	Frai Francisco Vitoria ibilbidea, 21 C (Gure Txokoa) - 01007 Vitoria-Gasteiz
Telefonoa	945 16 26 00
Kudeatzailea	Iñaki Diez Unzueta

Enpresaren izena	INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA
IFZ	Q5150009H
Jarduera	Ingurumenaren sustapena, ikerkuntza eta ikaskuntza
Helbidea	Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 -01008 Vitoria-Gasteiz San Martineko udal bulegoen eraikina
Telefonoa	945 16 26 96
Zuzendaria	Luis Andrés Orive

Enpresaren izena	JOSE URUÑUELA DANTZA KONTSERBATORIOA
IFZ	Q5150011D
Jarduera	Dantza kontserbatorioa
Helbidea	Hiru Probintzien plaza, 8 - 01002 Vitoria-Gasteiz
Telefonoa	945162606
Zuzendaria	Carmen Tercero

Enpresaren izena	LUIS ARANBURU MUSIKA ESKOLA
IFZ	G01169507
Jarduera	Musika irakaskuntza
Helbidea	Hedegile kalea, 108-behea - 01001 Vitoria Gasteiz
Telefonoa	945161688
Zuzendaria	Paco Galve

3.2.- ANTOLAKUNTZA EGITURA

Gasteizko Udalak eskumen ugari ditu, eta horiek baliatu eta garatzeko bitartekoak eta baliabideak behar ditu, kalitateko zerbitzuak ematen dituela bermatzearen. Hori guztia hainbat mailatan egituratzen den antolakuntza batez bideratzen da: maila gorenean, eta arlo politikoan, alkate lehendakaria, Udalbatza eta gobernu taldea daude; bestetik, udal sail eta antolakunde edo erakundeak, eta langileak.

Sail edo erakundeei atxikitako langile-plantillak betetzen ditu esleitutako eskumenak gauzatzea eta herritarrei zerbitzuak baldintza optimoetan ematea ahalbidetzen duten funtzioak, zereginak eta jarduerak, eta horretarako askotariko lantokietan biltzen dira: administrazio eraikinak, ikastetxeak, kirol instalazioak, gizarte etxeak, haurrentzako edo adingabeentzako zentroak, laborategiak, azpiegiturak mantendu eta zaintzeko zentroak, besteak beste.

Plan honi dagokionez, lantokitzat jotzen da udal administrazioko plantilla publikoak jarduera profesionala garatzen duen edo atxikita dagoen espazio fisikoa. Lantokien aniztasuna, horien sakabanaketa geografikoa eta ematen dituzten zerbitzuen ugaritasuna eta bolumena direla kausa, antolakuntza konplexua da, eta hori bereziki agerian geratzen da langileen laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzerakoan.

Nolanahi ere, laneko arriskuen kudeaketaren oinarri izan behar duen prebentzioaren antolakuntzak gutxienez bi zutabe izan behar ditu: goi maila politikoa, eta arlo teknikoa, hau da, sail, erakunde autonomo eta udal enpresetako zuzendariak eta buruak.

Haien mende dauden lantokiek ematen diete zerbitzu, bertan gauzatzen baita arriskuen prebentzioaren kudeaketa, Udalaren Segurtasun Planak, Prebentziorako Kudeaketa Sistemak eta prebentzio plan honek emandako jarraibideak aintzat hartutik.

Egitura konplexua eta aldakorra izanik, haren dinamismoak langileak etengabe mugitu beharra dakar, eta enplegatu publikoen kopurua eta kokalekuak aldatzea.

3.3.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOAREN ANTOLAKUNTZA EGITURA

Langileek —funtzionarioak, bitartekoak, lan-kontratupekoak zein aldi baterako langileak izan— askotariko funtzioak eta zereginak betetzen dituztelarik, arriskuen tipologia oso zabala da, eta horrek ezaugarri hauek dituen prebentzio-antolakuntza izatera behartzen du:

Koordinatua: Udaltzarak Funtzio Publikoaren Sailaren bitartez ematen dituen oinarritzko ildo orokorreari jarraituko zaie Gasteizko Udalean laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko.

Zuzendua: sailek, erakunde autonomoek eta udal enpresek zuzenduko dituzte haien mende dauden lantokietako prebentzio jarduerak, prebentzio osoaren kudeaketa homogeneo eta integratzailea ahalbidetearren.

Deszentralizatua: lantoki bakoitzak gaitasun nahikoa izango du laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko, dagokion zuzendaritzak ematen dituen jarraibideak betez.

Partekatua: laneko arriskuen prebentziorako politika eraginkortasunez eta era jarraituan aplikatu ahal izateko, enplegatu publikoak beren lantokietako eta lanpostuetako lan-baldintzak hobetzen inplikatu dira.

Egituratua: Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua betez.

Laneko arriskuen prebentziorako eredia prebentzio zerbitzu propio mankomunatuan oinarritzen da, zeinak beharrezko giza baliabideen eta baliabide materialen multzo bat izango baitu langileen segurtasuna eta osasuna egoki babesten direla bermatzeko prebentzio-jarduerak egiteko, tokiko administrazioari, plantillari eta haien ordezkariari aholkuak eta sostengua emanaz.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea ezartzeko baldintzak zehazteko hitzarmenak aurreikusten du langileek ere parte hartuko dutela laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketan, prebentzioko ordezkarien eta segurtasun eta osasun batzordeen bidez.

Organo horiek elkarren arteko harremana izan behar dute, bai eta kudeaketaren agente zuzenekin ere: sailak, erakunde autonomoak, udal enpresak, lantokiak eta langileak berak; horiek guztiek osatuko dute prebentzio-egitura egokia langile publikoei babes zein segurtasun maila optimoa bermatzearen.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Gasteizko Udalean laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa koordinatuko du. Hauek osatuko dute: Alkatetzak, alkatearen bitartez, toki-erakundearen ordezkari goren eta arduraduna baita; Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak, zuzendariaren eta arduradun politikoaren edo zinegotzi ordezkariaren bitartez, eta Prebentzio Zerbitzuko buruak.



LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA
PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
9.or. 20tik / Pág. 9 de 20
PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE
PREVENCIÓN

Zeregin horietan, behar diren kontrolak ezarriko ditu eta arriskuen prebentzioaren alorrean jarraibideak eta oinarri komunak emango ditu, Udalean egiten diren prebentzio-jarduera guztien kudeaketa eraginkorra, efizientea eta aldi berean integratzailea lortzeko xedez.

SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEAK

Parte hartzeko erakunde parekideak eta kide anitzekoak dira, Gasteizko Udalean lan-arriskuen prebentzioaren arloan egiten diren jardunak erregulartasunez eta aldizkakotasunez kontsultatzeko, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 38. artikuluan eta hurrengoetan zehazten dira haien funtzioak.

Berrogeita hamar langiletik gora duten antolakunde edo entitateetan osatu dira: Tuvisa, Amvisa eta Udala bera.

PREBENTZIO ZERBITZUAK

Prebentzio-jarduerak garatu eta gauzatzeko behar diren baliabideak prebentzio zerbitzu propio mankomunatu baten bidez antolatuko dira, zeina Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren mende izango baita.

Zuzenean jardungo du toki-administrazioaren esparruan, eta lau atal edo prebentziorako oinarriko espezialitateetan egituratuko da; Funtzio Publikoaren Sailaren bulegoetan kokatuko dira (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, Gasteiz).

Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak —Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten du— III. kapituluan ezarritako betebeharrak kontuan hartuz, prebentzio zerbitzua diziplinartekoa izango da, eta kideak beren arloko lan-arriskuen prebentzioaz arduratuko dira, elkarren artean beharrezkoa den lankidetzaren kalterik gabe.

Giza baliabideak eta bitarteko materialak helburuak betetzeko eta jarduera burutzeko egokiak izango dira, laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauetan ezarritako jarduera printzipio eta irizpideei jarraituz.

LANGILEAK

Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak —abenduarien 12ko 54/2003 Legeak aldatua— V. kapituluaren xedatzen duenez, langileek enpresan parte hartzeko eskubidea dute, laneko arriskuak prebenitzearekin zerikusia duten gaitan, prebentzio eskuordeen eta segurtasun eta osasun batzordeen bidez.

PREBENTZIOAREN KOORDINAZIOA

Funtzio Publikoaren Saila arduratuko da laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa koordinatzeaz. Egiten diren prebentzio-jarduerak guztien kudeaketa eraginkorra, efizientea eta aldi berean integratzailea lortzeko xedez, prebentzio zerbitzu propio mankomunatuak jarduerak koordinatua izango du, jarduteko oinarriko parametro komunei jarraituz.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza arduratuko da, Prebentzio Zerbitzuaren bitartez, sail, erakunde autonomo eta udal enpresa guztiak koordinatzeaz, eta horretarako oinarriko parametro edo eduki komunak ezarriko ditu; horien barruan prebentzio-jardueren integrazio-maila optimoa bermatzeko prozedurak edo jarraibideak aurreikusi edo sartu beharko dira, toki administrazioaren prebentzio-politika irizpide bateratuei jarraituz kudeatu dadin zentro eta lantokietan.

Ogasun Sailari dagokio laneko arriskuen prebentzioaren alorreko ardura duten organoen esku jartzea prebentzio politika bere atal ezberdinetan gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak.

Langileen parte-hartzea segurtasun eta osasun batzordeen bitartez koordinatuko da, bakoitza bere jardueraren eremuaren barruan.

Sail, erakunde autonomo edo udal enpresa bakoitzaren zuzendaritzak zuzendu, gainbegiratu eta koordinatuko ditu bere eskumen eta ardurapeko lantokietan egiten diren prebentzio jarduerak, eta bereziki ziurtatuko du arriskuen ebaluazioetatik ondorioztatzen diren neurriak aplikatzen direla eta Prebentzio Zerbitzuak zentro bakoitzerako planifikatzen dituen jarduerak betetzen direla.

Kudeaketa eraginkorra lortzearen, sail, erakunde autonomo eta udal enpresa orotan prebentzio-egitura bat diseinatu da, bakoitzaren berezitasunen arabera (tamaina, sakabanaketa, jarduerak, arriskuak eta beste), bi mailatan banatuta:

- 1. maila: prebentzioko koordinatzaile orokorra (Prebentzio Zerbitzuarekiko solaskidea).
- 2. maila: segurtasun-koordinatzailea (zerbitzua, atala, lantokia...).

Sailean 2. mailako koordintzailea beharrekotzat jotzen ez bada, maila horri dagozkion funtzioak 1. mailako koordinatzaileak egingo ditu.

Sailean segurtasun-koordinatzaileak (2. maila) bada zerbitzuen zati baterako, horrelakorik ez duten gainerako zerbitzuetan 2. mailarik ez duten sailetan bezala jokatuko da, hau da, saileko prebentzioko koordinatzaileak arduratuko dira zerbitzu horietako 2. mailako zereginenez.

Zuzendaritzak izendatuko ditu prebentzio-organigrama horretako langileak, langileen profil funtzionala eta eraginkortasun eta efizientzia printzipioak kontuan izanik.

I. eta II. eranskinetan jaso da izendatutako langileen izenen zerrenda. 3.4.-

ERANTZUKIZUNAK ETA FUNTZIOAK

Laneko arriskuen prebentzioa zuzen aplikatu ahal izateko, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiarekin eta plan honetan jasotako prebentzio-antolakuntzarekin bat etorritik, lan segurtasunaren eta osasunaren alorreko maila eta agente bakoitzaren erantzukizunak eta funtzioak zehaztu behar dira.

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILEKO ZUZENDARITZA

Laneko arriskuen prebentzioaren koordinazioa sustatuko du. Bereziki, haren eskumena izango da Segurtasun eta Osasun Batzordea duten hiru entitateak koordinatzea, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuaren bitartez.

Zeregin horiek betez, bere alorreko laneko arriskuen prebentzioaren egoeraren berri emango dio aldian behin Zuzendaritza Batzordeari.

OGASUN SAILEKO ZUZENDARITZA

Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko lehentasunak ezarri direlarik, Udalaren Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan behar diren baliabide ekonomikoak xedatuko ditu, sailek igorritako proposamenak oinarritzat hartuz.



**LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA**
**PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES**

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
12.or. 20tik / Pág. 12 de 20
PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE
PREVENCIÓN

SAIL, UDAL ENPRESA ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ZUZENDARITZAK

Zuzendaritza politiko zein teknikoen erantzukizuna da beren eskumeneko lantokietan segurtasun eta osasun baldintzak betetzen direla zaintzea.

Erantzukizun politikoa duenak kontrolatu eta gainbegiratuko du laneko arriskuen eta osasunaren prebentzioaren alorreko indarreko legeria eta ezarritako helburuak betetzen diren.

Erantzukizun teknikoa duena arduratuko da behar den arloetan prebentzio-antolakuntza garatzeaz, bete beharreko helburuak zein horiek lortzeko baliabideak eta bitartekoak ezarriz. Zeregin hauek beteko ditu:

- Bere ardurapeko lantokietan prebentzio-jarduerak garatzeko helburuak eta urteko baliabidezuzkidura zehaztea, laneko arriskuen prebentziorako politikarekin bat etorritik eta Prebentzio Zerbitzuak egindako plangintzari jarraituz.
- Prebentzio-jarduerak egiteko nahitaezko prebentzio-antolakuntza diseinatu eta ezartzea, plan honetan aurreikusitako irizpideei jarraituz.
- Segurtasun eta osasun alorreko arduradunak izendatzea.
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari bere jarduera-eremuari dagokion dokumentazioa bidaltzea, hark bere zereginak zuzen betetzerik izan dezan.
- Prebentzio alorreko jarduera beste sail batzuekin koordinatzea, baldin eta lantoki bakarrean arlo ezberdinetako administrazio atalik bada.
- Bere saileko langileek laneko arriskuen prebentzioaren alorrean jaso behar duten informazioa/prestakuntza proposatzea.
- Prebentzioaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen den ekintza oro, langileen segurtasuna eta osasuna hobetuko badu.

PREBENTZIOKO KOORDINATZAILE OROKORRA

Sailaren, erakunde autonomoaren edo udal enpresaren eta Prebentzio Zerbitzuaren arteko solaskidea da.

Egin beharreko prebentzio-jarduerak sustatu, koordinatu eta kontrolatzea dagokio. Berariaz zeregin hauek izango ditu:

- Bere sailak jasotzen dituen jarraibideetan ezarritako helburuak betetzea eta betearaztea.
- Bere sailean, erakunde autonomoan edo udal enpresan ezarritako prebentzio-neurrien berri ematea Prebentzio Zerbitzuari.

- Prebentzio Zerbitzuari laguntzea prebentzioaren kudeaketan.
- Bere ardurapeko langileei Prebentzio Zerbitzuak haiei banatzeko xedez helarazten dizkion informazioa eta dokumentazioa ematea; jaso dutela egiaztatu beharko da.
- Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren prozedurak ezartzen laguntzea eta betetzen diren jarraitzea.
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari laguntzea beren lantokietarako autobabes planak lantzen eta ezartzen.
- Segurtasun koordinatzaileei laguntzea haien zereginetan.
- Horrekin lotutako gabeziarik antzemanaz gero, informazio edo prestakuntza jarduerak proposatzea, langileek ahalik eta era zuzen eta seguruenean bete ditzaten beren funtzio eta zereginak.
- Langileek egiten dituzten iradokizunak eta hobetzeko proposamenak jaso eta aztertzea.
- Prebentzio ordezkarien jarduerak erraztea.
- Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean ez-betetzetik bada, saileko zuzendaritzari jakinaraztea.

SEGURTASUN KOORDINATZAILEA

Saileko segurtasun-arduradunarekin batera bere arloan prebentzioaren kudeaketaren aplikazioa eta ezarpena koordinatzeaz arduratzen da. Berariaz zeregin hauek izango ditu:

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari laguntzea prebentzioaren kudeaketa garatzen.
- Arriskuen ebaluaziotik edo beste jarduera batzuetatik ondorioztatzen diren prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak betetzen diren jarraitzea, ezarritako prozeduraren arabera.
- Langileei beren lantokietan dauden arriskuez informatzea, bai eta hartu beharreko prebentzio eta babes neurriez ere.
- Lantokiari atxikitako langileek lan prozedurak eta jarraibideak segurtasun eta osasun baldintza egokietan betetzen dituztela zaintzea.
- Prebentzio Zerbitzuak zereginak betetzeko egokitzat jotzen dituen norbera babesteko ekipamenduak —arriskuen ebaluazioan zehaztutakoak— ematea, eta hondatzen direnean horiek ordeztzea; dagokion ereduaren bidez egiaztatuta geratu beharko da eman eta jaso izana.
- Prebentzio Zerbitzuari jakinaraztea lanean izandako istripu eta gertakariak —baja eragin ala ez—, gaixotasun profesional izan daitezkeenak, edo arrisku biologikoa ekar dezaketen istripuak edo gertakariak, horretarako dauden ereduak erabiliz eta horretarako ezarritako prozedurei jarraituz.

- Haren ardurapeko langileren bat haurdun bada, edo berriki umea izan badu, Prebentzio Zerbitzuari edo Laneko Osasunaren Atalari jakinaraztea.
- Bere lantokian edo atalean jazotzen diren istripu edo gertakariak ikertzen esku hartzea, eta ikerketaren ondoren Prebentzio Zerbitzuak zehazten dituen prebentzio neurriak betetzea.
- Bereziki zaintzea sor daitezkeen egoera kritikoak, dela zeregin berriak betetzean dela ohikoetan, behar diren neurri zuzentzaileak berehala hartzearen, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuari aurretiaz jakinarazita ebaluatu ditzan.
- Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren prozedurak ezartzen laguntzea eta betetzen diren jarraitzea.

LANTOKIAREN ARDURADUNA

Lantoki bakoitzaren arduradunak prebentzioko koordinatzaile orokorrari zein segurtasun koordinatzaileari lagunduko die prebentzioaren kudeaketan. Zeregin hauek izango ditu:

- Aktiboki laguntzea arriskuen prebentziorako plana garatzen eta betetzen lantokiari dagokionez eta, zehazki, bere ardurapeko atalari edo arloari dagokionez.
- Prebentzio Zerbitzuari laguntzea lantokiko autobabes planak eta ebakuazio simulakroak lantzen, ezartzen eta jarraitzen.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko kultura positiboa sortzea.
- Prebentzioko arduradun orokorrak edo segurtasun koordinatzaileak zehazten dituen prebentzio-jardueretan laguntzea.
- Bere ardurapeko enplegatuek haien zereginak edo funtzioak betetzean segurtasunez joka dezaten sustatzea, lan ekipamenduak zuzen erabiltzen direla egiaztatuz, eta langileek prebentzio-ekintzekiko interesa izan dezaten eta horretan parte hartu dezaten bultzatzea.
- Prebentzio alorreko informazioa bideratzea.
- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioa berrikusi eta kontrolatzea, eta eskuragarri dagoela bermatzea.
- Prebentzio koordinatzaile orokorrak edo segurtasun koordinatzaileak eskuordetzen dizkieten beste funtzio batzuk.

ENPLEGATU PUBLIKOAK

Enplegatu publikoek, Gasteizko Udalarekin duen zerbitzu harremanaren araubide juridikoa edozein delarik, zeregin hauek beteko dituzte:

- Beren lan segurtasuna eta osasuna zaintzea, beren ahalmenen arabera eta kasuan kasu hartutako prebentzio neurriak betez, bai eta lankideenak edo beren jarduera profesionalak eragin ditzakeen erabiltzaileena ere.
- Lanerako behar dituzten makinak, gailuak, tresnak, garraio-bideak edo bitarteko oro egoki erabiltzea, haien izaera eta aurreikusteko moduko arriskuak kontuan hartuz.
- Beren jarduerarekin lotutako bitartekoetan edo lan egiten duten lekuetan dauden edo instalatzen diren segurtasun gailuak funtzionamendutik kanpo ez uztea eta zuzen erabiltzea.
- Beren ustez egoeraren batek arriskua badakar langileen segurtasun eta osasunerako, arduradunari berehala jakinaraztea.
- Arduradunari berehala jakinaraztea lan istripuak, gaixotasun profesionalak, haurdunaldiak edo edoskitze-aldiak edo lanpostuaren arriskuen aurrean bereziki sentiberatzen dituzten egoerak.
- Prebentzio teknikariek lantokien eta lanpostuen arrisku ebaluazioetan emandako jarraibideak une oro betetzea.
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko langileei laguntzea lantokietara egiten dituzten bisitetan edo istripu eta gertakarien ikerketetan, edo laneko arriskuen prebentzioarekin lotuta behar den guztietan.
- Ematen zaizkien prebentzio-aginduak betetzea.
- Lan egiten duten lantokiko autobabes plana lantzen eta ezartzen laguntzea.
- Ematen zaizkien norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea, horretarako emandako jarraibideak, hierarkiako nagusienak edo arriskuen ebaluazioan zehaztutakoak betez.
- Arriskuen prebentzioaren alorreko dokumentazioa, norbera babesteko ekipamenduak edo laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako beste edozein material eman eta jaso izana egiaztatzen duten agiriak sinatzea.
- Laneko arriskuen prebentzioaren alorrean antolatzen diren prestakuntza edo informazio jardueretan parte hartzea.



**LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA**
**PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES**

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
16.or. 20tik / Pág. 16 de 20
PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE
PREVENCIÓN

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak —prebentzio plan honetan dagokion atalean deskribatzen da— behar den aholkularitza eta laguntza emango du, arrisku moten arabera eta alor hauetan:

- Prebentzioa integratzeko bide ematen duen Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana diseinatu, ezarri eta aplikatzea.
- Langileen segurtasun eta osasunari eragin diezaieketen arrisku-faktoreak ebaluatzea, 31/1995 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako terminoetan.
- Prebentzio jarduera planifikatzea, prebentzio neurri egokiak hartzeko lehentasunak zehaztea eta eraginkorrak direla zaintzea.
- Langileei informazioa eta prestakuntza ematea.
- Lehen laguntza ematea eta autobabes planak.
- Langileen osasunaren zaintza.
- Prebentzio Zerbitzuaren urteko oroitidazkia idaztea.
- Sail, udal enpresa eta erakunde autonomoetako zuzendariei aholkularitza ematea prebentzioarekin lotutakoetan.

Prebentzio Zerbitzuak eta, zehazki, zerbitzuko teknikariek zein osasun langileek, laneko segurtasun eta osasunarekin zuzenean lotutako neurriak hartzeko agindu diezaiekete enplegatu publikoei, eta haiek nahitaez bete beharko dute agindutakoa.

Prebentzio Zerbitzuari langileei buruz jakinarazten zaizkion datuak isilpekoak izango dira, eta eskatzeko zio izan zen helbururako erabiliko dira, ez beste ezertarako.

PREBENTZIORAKO ESKUORDEAK

Prebentziorako eskuordeak langileen ordezkariak dira, laneko arriskuen prebentzioaren alorrean berariazko zereginak dituztenak. Horien izendapena eta kopurua azaroaren 8ko 31/1995 Legeak xedatutakoaren arabera izango da, eta bereziki, Laneko Arriskuen Prebentziorari buruzko Legea ezartzeko baldintzak zehazteko hitzarmenak —eta horien eguneratzeek— aurreikusitakoaren arabera, hauteskunde sindikaletan lortutako ordezkariak kontuan hartuz. Azaroaren 8ko 36/1995 Legearen 36. artikulua ezartzen duenez, eskumen eta ahalmen hauek izango dituzte:

- Antolakundearekin lankidetzan aritzea prebentzio jarduna hobetzeko.

- Langileen lankidetza sustatzea zein bultzatzea lan-arriskuak prebenitzeko arautegia betetzeko.
- Kontsultak jasotzea azaroaren 8ko 36/1995 Legearen 33. artikulua aipatzen dituen erabakien inguruan, eta erabaki horiek bete baino lehenago.
- Laneko arriskuaren prebentzioaren alorreko araudia betetzen den zaindu eta kontrolatzea.

Eman zaizkien eskumenez baliatuz, ahalmen hauek izango dituzte:

- Teknikariei laguntzea, laneko ingurunearen prebentzio-izaerako ebaluazioetan, bai eta, 36/1995 Legearen 40. artikulua ezarritakoaren arabera, Laneko eta Gizarte Segurantzako zein Osalaneko ikuskatzaileei laguntzea ere, horiek lantokietan egiten dituzten bisita eta egiaztapenetan, lan-arriskuak prebenitzeko arautegia betetzen dela egiaztatzen. Ikuskatzaile horiei egin diezazkieteko egokitzat jotzen dituzten oharrak.
- Eskura izatea, 36/1995 Legearen 22. artikuluko 4. idatz-zatian jasotako mugekin, beren eginkizunak gauzatzeko lan-baldintzen gainean behar dituzten informazioa eta agiriak, eta, bereziki, aipatutako legearen 18. eta 23. artikuluek aurreikusitakoa. Informazioak muga horiek dituenean, langileen datuen konfidentziasuna errespetatzekotan bakarrik eman ahalko da.
- Udalak langileen osasunak kalterik izan duela jakinez gero, prebentziorako eskuordeei ezagutaraziko die; nahi izanez gero gertaerak izan diren lekura joaterik izango dute, baita lanalditik kanpo ere, gertaeren inguruabarren berri izateko.
- Enpresan babes eta prebentzio-jarduerak arduratzen diren pertsona edo organoek eta langileen segurtasun eta osasunerako eskumenak dituzten erakundeek emandako informazioa jasotzea, 31/1995 Legearen 40. artikulua Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileekin eta Osalanekin elkarlanean aritzeari buruz xedatutakoari kalterik egin gabe.
- Lanlekuetara bisitak egitea lan baldintzen egoera zaindu eta kontrolatzearen; horretarako, edozein aldetara sartu ahalko dira eta lanaldian zehar langileekin hitz egin, zentroko ohiko jarduerari traba ez egiteko moduan.
- Prebentziorako neurriak eta langile publikoen segurtasunaren eta osasunaren babes maila hobetzeko neurriak har daitezkeen lortzea; horretarako, enpresaburuari proposamenak egin ahalko dizkiote, bai eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari ere, bertan eztabaidatzeko.
- Langileen ordezkari-organismoari proposatzea 31/1995 Legearen 21. artikuluko 3. idatz-zatiak aipatzen dituen jarduerak geldiarazteko erabakia har dezan.

Prebentziorako eskuordeen egitekoa izango da langileak lanean jardunbide eta portaera seguruak hartzea bultzatzea, eta laneko arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dagoen legeria bete dadin eskatzea.

SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEA

Segurtasun eta osasun batzordea parte hartzeko erakunde parekidea eta kide anitzekoa da, lan-arriskuen prebentzioaren arloan enpresaren jardunak erregularitasunez eta aldizkakotasunez kontsultatzeko.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea ezartzeko baldintzak zehazteko hitzarmenean xedatzen da eremu bakoitzeko segurtasun eta osasun batzordeen kopurua eta osaera.

Eskumen hauek izango dituzte segurtasun eta osasun batzordeek:

- Arriskuak prebenitzeko planak eta programak egiten, abian jartzen eta ebaluatzen parte hartzea. Horretarako, batzordean eztabaidatuko dira, abian jarri aurretik eta arriskuak prebenitzeko duten eraginari dagokionez, arlo hauetako proiektuak: plangintza, lanaren antolaketa eta teknologia berriak sartzea; 31/1995 Legearen 16. artikulua aipatzen dituen babes eta prebentzio-jardueren antolaketa eta garapena, eta prebentzio-arloko prestakuntzaren egitasmo eta antolaketa.
- Arriskuei benetan aurrea hartzeko metodo eta prozedurekin lotutako ekimenak sustatzea, baldintzak hobetzeko eta dauden gabeziak zuzentzeko proposatuz.

Bere eskumenez baliatuz, Segurtasun eta Osasun Batzordeak ahalmen hauek izango ditu:

- Arriskuen prebentzioari dagokionez lanlekuen egoera zuzenean ezagutzea, horretarako egokitzat jotzen dituen bisitak eginez.
- Bere zereginak betetzeko ezagutu behar dituen agiri eta txosten guztiak eskura izatea, lan baldintzekin lotutakoak zein prebentzio zerbitzuaren jarduerak sortutakoak, halakorik bada.
- Langileen osasunean edo osotasun fisikoan gertatutako kalteak ezagutu eta aztertzea, kausak balioetsi eta beharrezko prebentzio neurriak proposatzearen.
- Prebentzio zerbitzuen oroitidazkia eta urteko programazioa ezagutu eta horiei buruzko txostena egitea.
- Prebentzio Planean jasotako dokumentazioa ezagutu eta horri buruzko txostena egitea.

3.5.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA KUDEATZEKO PRAKTIKAK, PROZEDURAK ETA PROZESUAK

Prebentzio-politikan ezarritako helburuak lortzearen, eta Gasteizko Udalaren kudeaketarako sistema orokorrean laneko arriskuen prebentzioa sustatzearen, prebentzio-jarduerak aplikatzeko eta lantokietan prebentzioa garatzeko prozedurak eta prozesuak idatzi eta onetsi ziren, ezarritako parametro edo eduki komun eta oinarritzkoak aintzat hartuta. Prozedura eta prozesu horiek aldatu edo zabaldu ahalko dira, beharren arabera eta une bakoitzean erabilgarri dauden baliabide materialen eta giza baliabideen optimizazioaren arabera.

Prebentzio Zerbitzuari dagokio praktikak, prozedurak eta prozesuak lantzea eta horiek aldatu eta zabaltzea, arlo bakoitzean eta horien berezitasunak kontuan hartuz. Horiek guztiak Prebentzio Planean sartuko dira, dagokion segurtasun eta osasun batzordeak onetsi ondoren.

Beharrezkoa bada, Prebentzio Zerbitzuak berariazko jarduera-programak landuko ditu, lantokietan gerta daitezkeen arrisku eta osasun arazo zehatzei eraginkortasunez aurre egiteko. Dagokion batzordeari aurkeztuko zaizkio programa horiek.

3.6.- BALIABIDEAK

Prebentzio plan honetan jasotakoa betetzeko, Gasteizko Udalak behar diren baliabideak jarriko ditu arlo hauetan:

1. Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua.

Behar den langile eta material teknikoaren dotazioaz. Dotazioa eguneratuz joango da udal plantilla handitzen den heinean, eta arriskuen ebaluazioetan, istripuen ikerketetan, osasuna zaintzeko jardueretan eta prebentzio teknikariek eta osasun oinarritzko atalek antzemandako beharrianen arabera.

2. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko prestakuntza.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoa betez, langileek prebentzioaren alorreko prestakuntza jasotzen dutela bermatuko du Udalak, langileek harekin duten harremanaren modalitatea eta iraupena edozein delarik, bai eta langileek betetzen dituzten funtzioak aldatzen direnean edo lan-ekipoetan teknologia berriak edo aldaketak sartzen direnean ere.

Prestakuntza Zerbitzuak laneko arriskuen prebentzioari buruzko berariazko ikastaroak emango ditu urtero, eta beste ikastaro batzuetan gaiari buruzko moduluak sartuko ditu.

Orobat, prestakuntza jarduerak antolatuko dira Planean zehaztutako prebentzio-antolakuntza osatzen dutenek prestakuntza egokia izan dezaten.

Prebentzio Zerbitzuak Prestakuntza Zerbitzuarekin batera adostuko ditu eman behar diren ikastaroen edukiaren proposamenak.

3. Prebentzio-jarduerak.

Sail, erakunde autonomo eta udal enpresek behar diren baliabideak edo aurrekontuko erreserbak jarriko dituzte urtero, beren menpeko zentroetako prebentzio-jardueren planifikazioetan aurreikusitakoa betetzen dela bermatzeko.

4.- PREBENTZIO PLANA LANDU, ONETSI ETA BERRIKUSTEA

Prebentzio Zerbitzuari dagokio Prebentzio Plana lantzea, plantillari, haren ordezkariari eta enpresari aholku emateko organo teknikoa den aldetik.

Segurtasun eta Osasun Batzordeari aurkeztu beharko zaio kontsultatzeko.

Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrari dagokio onestea.

Udalaren beharrak, antolakuntza edo horiek arautzen dituen lege esparrua aldatuz gero, Prebentzio Plana berrikusi egingo da.



**LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA**
**PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES**

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
1.or. 4tik / Pág. 1 de 4
PREBENTZIO ZERBITZUA
**SERVICIO DE
PREVENCIÓN**

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA

I. ERANSKINA. GASTEIZKO UDALAREN PREBENTZIO-ANTOLAKUNTZA

ZUZENDARITZA BATZORDEA		
ALKATE LEHENDAKARIA		
FUNTZIO PUBLIKOAREN ZINEGOTZI ORDEZKARIA	FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILEKO ZUZENDARI NAGUSIA	LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO-RAKO ZERBITZUARIA
JAIONE AGUIRRE	FELICIANO PÉREZ	ALVARO CÁRDENAS

LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNEKO BATZORDEA			
LEHENDAKARIA (FUNTZIO PUBLIKOAREN ZINEGOTZI ORDEZKARIA)			
ERAKUNDEAREN ALDEKO KIDEAK		PREBENTZIO-RAKO ESKUORDEAK	
EAJko zinegotzia	Jaione Aguirre	ELA	Montserrat Sainz Alonso
Ordezkoa	Feliciano Pérez		
PPko zinegotzia	Manuel Uriarte	ELA	Juan Pablo Márquez Pallés
Ordezkoa	Alfredo Iturricha		
EH Bilduko zinegotzia	Aitor Miguel Quintana	ELA	Rafael Rozas Calderón
Ordezkoa	Miren Larrion		
AHAL DUGUko zinegotzia	Jorge Hinojal Sotomayor	ELA	Kepa Rico Cantera
Ordezkoa	Juan Cerezuela Mirón		
Saileko zuzendaria	Sara Buesa	LAB	Juan Losada Iñurrategi
Ordezkoa	Jose Luis Pérez Gómez		
Saileko zuzendaria	Ainhoa Etxeandia	LAB	Alberto Elejalde Uztarroz
Ordezkoa	Miguel Ángel García-Fresca		
Saileko zuzendaria	Begoña Orcasitas	CCOO	María López de la Calle Marquínez
Ordezkoa	Juncal Ibeas		



LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA
PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
2.or. 4tik / Pág. 2 de 4
PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE
PREVENCIÓN

SAILAK	
ALKATETZA, EKONOMIA ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN ARLOA	
01 ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK	Arduradun politikoa: Gorka Urtaran – Jaione Aguirre
	Arduradun teknikoa: Blanca Guinea
04 OGASUNA	Arduradun politikoa: Itziar Gonzalo
	Arduradun teknikoa: Vidal Gorostiaga
08 ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRA	Arduradun politikoa: Nerea Melgosa
	Arduradun teknikoa: Juncal Ibeas
09 FUNTZIO PUBLIKOA	Arduradun politikoa: Jaione Aguirre
	Arduradun teknikoa: Feliciano Pérez
GIZARTE ETA UDAL ADMINISTRAZIOAREN ARLOA	
03 HERRITARREN SEGURTASUNA	Arduradun politikoa: Carlos Zapatero
	Arduradun teknikoa: José Antonio Anguiano
10-16 UDAL ADMINISTRAZIOA	Arduradun politikoa: Carlos Zapatero
	Arduradun teknikoa: Begoña Orcasitas
11 GIZARTE POLITIKAK ETA OSASUN PUBLIKOA	Arduradun politikoa: Peio López de Munain
	Arduradun teknikoa: Sara Buesa
18 PARTAIDETZA ETA GIZARTE ETXEAK	Arduradun politikoa: Isabel Martínez
	Arduradun teknikoa: Jose Luis Pérez Gómez
23 KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA	Arduradun politikoa: Estibaliz Canto
	Arduradun teknikoa: Nora Igartua
HIRIGINTZAREN, INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN ARLOA	
02 HIRIGINTZA	Arduradun politikoa: Itziar Gonzalo
	Arduradun teknikoa: Miguel Ángel García-Fresca
15 INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	Arduradun politikoa: Iñaki Prusilla
	Arduradun teknikoa: Ainhoa Etxeandia



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA
PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
3.or. 4tik / Pág. 3 de 4
PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE
PREVENCIÓN

PREBENTZIO ORGANIGRAMA, SAILEZ SAIL	
ALKATETZA, EKONOMIA ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN ARLOA	
01 ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	Josune Izquierdo
Nekazaritza eremuko segurtasun-koordinatzailea	Monica Ibarondo
Herritarrentzako Arreta eta Informazioko segurtasun-koordinatzailea	Amaia Mujika
04 OGASUNA	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	David Rodríguez
08 ENPLEGUA ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRA	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	Elisa Campo García
Biltzar eta Turismoko segurtasun-koordinatzailea	Jon Bittor Fagundez
Enpleguko segurtasun-koordinatzailea (Ellacuría-Cetic)	Mikel de Frutos
09 FUNTZIO PUBLIKOA	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	Alvaro Cárdenas

PREBENTZIO ORGANIGRAMA, SAILEZ SAIL	
HIRIGINTZAREN, INGURUMENAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN ARLOA	
02 HIRIGINTZA	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	Carlos Cerrillo
15 INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	Josean Haro
Hiriko Mantentzeko segurtasun-koordinatzailea	Txomin Guede
Zerbitzu Elektrikoen segurtasun-koordinatzailea	Aitor Epalza
Lorategien segurtasun-koordinatzailea	Iñaki Lekuona
Hilerrien segurtasun-koordinatzailea	Kepa Arza
Ingurumeneko segurtasun-koordinatzailea	Ramón Fernández de Corres



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA
PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
4.or. 4tik / Pág. 4 de 4
PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE
PREVENCIÓN

PREBENTZIO ORGANIGRAMA, SAILEZ SAIL	
GIZARTE ETA UDAL ADMINISTRAZIOAREN ARLOA	
03 HERRITARREN SEGURTASUNA	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	Xabier Ortiz
10-16 UDAL ADMINISTRAZIOA	
Informazioaren Teknologien prebentzio-koordinatzailea	Ana Novoa
U. Eraikinetako Mantentzeko prebentzio-koordinatzailea	Cristina Cameno
Garbiketako segurtasun-koordinatzailea	Amaia Ortiz
Obren segurtasun-koordinatzailea	José Miguel Rodríguez
11 GIZARTE POLITIKAK ETA OSASUN PUBLIKOA	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	Rosana Urtaran
Haurtzaro eta Senitarteko segurtasun-koordinatzailea	Loli García
Gizarte Inklusioko segurtasun-koordinatzailea	Charo Basterra
Komunitate Jarduerako segurtasun-koordinatzailea	Antonio Ruiz
“San Prudentzio” ALZiko segurtasun-koordinatzailea	M^a José Elkoro
Egoitza Baliabideetako segurtasun-koordinatzailea	Ana Ruiz
Osasun Publikoko segurtasun-koordinatzailea	Charo Preciado
18 PARTAIDETZA ETA GIZARTE ETXEAK	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	Marilo Movilla
Gizarte Etxetako segurtasun-koordinatzailea	Eduardo Enguita
Herritarren Partaidetzako segurtasun-koordinatzailea	Juan Carlos Alonso
23 KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA	
Saileko prebentzio-koordinatzailea	Nieves Díaz de Corcuera
Kulturako segurtasun-koordinatzailea	Nati Ruiz de Eguino
Hezkuntzako segurtasun-koordinatzailea	Reina Ruiz
Kiroletako segurtasun-koordinatzailea	Mikel Hoyos



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA**
**PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES**

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
1.or. 2tik / Pág. 1 de 2
PREBENTZIO ZERBITZUA
**SERVICIO DE
PREVENCIÓN**

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA

II. ERANSKINA. PREBENTZIO ANTOLAKUNTZA. UDAL ENPRESA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

TUVISAKO SEGURTASUN ETA OSASUNeko BATZORDEA	
LEHENDAKARIA (TUVISAKO KUDEATZAILEA)	
ERAKUNDEAREN ALDEKO KIDEAK	PREBENTZIORAKO ESKUORDEAK
Marijo Ajuriaguerra	José Luis Juanes
Begoña Ramón	Manuel José Tajés
Miguel Ibarondo	José Martín Anda López de Arbina

AMVISAKO SEGURTASUN ETA OSASUNeko BATZORDEA	
LEHENDAKARIA (AMVISAKO KUDEATZAILEA)	
ERAKUNDEAREN ALDEKO KIDEAK	PREBENTZIORAKO ESKUORDEAK
Ángel Llamazares	Carlos Herrán
Nerea Recalde	Asier Moreno

PREBENTZIORAKO ESKUORDEAK	
TUVISA	José Luis Juanes
	Manuel José Tajés
	José Martín Anda
AMVISA	Carlos Herrán
	Asier Moreno
ENSANCHE 21 ZABALGUNEA	Daniel González de Garibay
CEA	Iñaki Febrero
JOSE URUÑUELA DANTZA KONTSERBATORIOA	Cristina Saldías
LUIS ARANBURU MUSIKA ESKOLA	Rosario Polentinos Martínez



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

LANEKO ARRISKUEN
PREBENTZIO PLANA
PLAN DE PREVENCIÓN DE
RIESGOS LABORALES

Edizioa / Edición: 03
Data / Fecha: 2017
2.or. 2tik / Pág. 2 de 2
PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE
PREVENCIÓN

UDAL ENPRESAK ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK	
TUVISA	Arduradun teknikoa: Marijo Ajuriaguerra
	Prebentzio-koordinatzailea: Begoña Ramón
AMVISA	Arduradun teknikoa: Ángel Llamazares
	Prebentzio-koordinatzailea: Nerea Recalde
ENSANCHE 21 ZABALGUNEA	Arduradun teknikoa: Iñaki Diez Unzueta
	Prebentzio-koordinatzailea: Iñaki Diez Unzueta
CEA	Arduradun teknikoa: Luis Andrés Orive
	Prebentzio-koordinatzailea: Garbiñe Alcalá
JOSE URUÑUELA DANTZA KONTSERBATORIOA	Arduradun teknikoa: Carmen Tercero
	Prebentzio-koordinatzailea: Carmen Tercero
LUIS ARANBURU MUSIKA ESKOLA	Arduradun teknikoa: Paco Galve
	Prebentzio-koordinatzailea: Paco Galve

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA

III. ERANSKINA. PREBENTZIOA KUDEATZEKO SISTEMAREN PROZEDUREN AURKIBIDEA

KODEA	PROZEDURA
PG-01	INFORMAZIOA, KONTSULTA ETA PARTE-HARTZEA
PG-02	ARRISKUEN EBALUAZIOA
PG-03	NEURRI ZUZENTZAILEAK
PG-04	PREBENTZIOAREN PLANGINTZA
PG-05	ISTRIPU ETA GERTAKARIEN IKERKETA
PG-06	NORBERA BABESTEKO EKIPOAK
PG-07	LANGILEEN PRESTAKUNTZA
PG-08	OSASUNAREN ZAINZA
PG-09	LARRIALDIETARAKO ETA NORBERA BABESTEKO PLANAK
PG-10	ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA
PG-11	LAN EKIPAMENDUAK
PG-12	LAN BALDINTZEN ALDAKETEN KONTROLA

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO PLANA

IV. ERANSKINA. PREBENTZIO POLITIKA

GASTEIZKO UDALEKO Zuzendaritzak, langileen segurtasunaz eta osasunaz duen berezko kezka berran, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legean ezarrita dauden xedapenak betetzeaz gain, betebeharrak aprobetxatuz langileen lan baldintzak ere ahal den neurrian hobetu nahi ditu.

Helburu horiek lortzeko, jarduna etengabe hobetu behar dela ulerturik, Gasteizko Udaleko Zuzendaritzak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- Aplikatu beharreko lege eta erregelamenduetan ezarritako arau guztiak betetzea.
- Erakundea prebentziozko eta legezko betebeharrak guztiak bete daitezela konprometitzea, langileei informazioa eta prestakuntza emanez.
- Erabiltzen diren prozesu, teknika eta lehengaiak aztertzea, eta langileei arrisku gutxien dakarzikietan aukeratzea.
- Langileei parte hartzeko aukera ematea, prebentziorako eskuordeen bidez, langileen segurtasun eta osasunean eragina duten alderdi guztiei dagokienez, legeak hala eskatu zein ez.
- Prebentziorako jarduerak aurrera eramateko baliabide nahikoak esleitzea.
- Laneko arriskuaren prebentziora buruzko kultura positiboa sortzea.

Helburu horiek lortzeko, Prebentzio Plana eta dagozkion prozedurak egin dira, eta oinarriko dokumentu horietan finkatu dira Gasteizko Udalak laneko arriskuaren prebentzioan aurrera eraman beharreko politika, betekizunak eta jarduerak.

GORKA URTARAN AGIRRE
Alkate lehendakaria

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren
9an.